BESTELAKO XEDAPENAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

3876

EBAZPENA, 2011ko uztailaren 8koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, Robotiker Fundazioari aitortutako Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako Lankidetza Erakundearen izaera indargabetzen duena.

Ikusi dugu Robotiker Fundazioari buruzko espedientea, Emakumeen eta Gizonen Aukera-berdintasunerako Lankidetza Erakundearen izaerari dagokiona.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2005eko urriaren 28ko Ebazpenaren bidez, Robotiker fundazioari Emakumeen eta Gizonen Aukera-berdintasunerako Lankidetza Erakundearen izaera aitortu zitzaion. Izaera hori azaroaren 8ko 424/1994 Dekretuaren bidez arautu zen.

Bigarrena.– 2011ko apirilaren 13an, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioko Erregistroaren egiaztagiri bat aurkeztu zen, non Robotiker Fundazioa Tecnalia Research & Innovation Fundazioak xurgatu zuela jasotzen den.

Hirugarrena.– 2011ko apirilaren 18an Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariak Robotiker Fundazioari aitortutako Emakumeen eta Gizonen Aukera-Berdintasunerako Lankidetza Erakundearen izaera indargabetzeko espedienteari ekiten zion Ebazpena eman zuen. Interesatuari apirilaren 27an jakinarazi zitzaion. Ebazpen horretan 15 eguneko epea eman zitzaion alegazioak aurkezteko. Gaur arte ez du alegaziorik aurkeztu.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Azaroaren 8ko 424/1994 Dekretuaren 6.1 artikuluan ezartzen denez, lankidetza-erakundeak aipatu alorrean diharduela egiaztatzen ez badu, aitorpenak indarra galduko du ondorio guztietarako.

Horrenbestez, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Robotiker Fundazioari aitortutako Emakumeen eta Gizonen Aukera-berdintasunerako Lankidetza Erakundearen izaera indargabetzea, aipatu fundazioa desegin delako, Tecnalia Research & Innovation Fundazioarekin bat egitearen ondorioz.

Bigarrena.– Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioetarako, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 58. artikuluan ezarritakoa betez.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 8a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA SILVESTRE CABRERA.